

Zumaiaiko herri aldizkaria

2001eko ekainak 15

BALEIKE

200 pta.

85. zenb.



Zumaia Getaria

idoloak
arraunean
idolo

Juan Belmonte, 29 behea
tel.: 943 86 15 45
faxes: 943 86 17 42
email: baleike@topagunea.com

Argitaratzailea

BALEIKE KULTUR ELKARTEA

Administrazio batzordea

Esther Etxeberria

Xabier Azkue

Erredakzioa batzordea

Esther Aizpurua

Eguzki Agirrezabalaga

Antxoka Agirre

Juan Luis Romatet

Josu Waliño

Gorka Zabaleta

Koordinatzailea

Juan Luis Romatet

Kazetariak

Antxoka Agirre

Xabier Aizpurua

Marraskigilea

Jon Manzisidor

Kolaboratzaileak

Miriam Romatet, Xabier Aranguren,
Jon Maia, Jon Sudupe, Esti Esteibar,
Dani Carballo, Joxe Mari Llabori,
Inaxio Tolosa, Inaxio Manterola,
Belen Golmaio, Izaga Garzia, Haize
Galarraga, Koldo Landaluze, Beñat
Fernandez de Arroyabe, Luis Mari
Aizpurua, Ihintz Linazisoro, Jose
Manuel Gonzalez Aramendi,
Ludoteka, Natur Taldea

Argazkiak

Baleike, Euskaldunon Egunkaria

Diseinua eta maketazioa

Argi Aizpurua

Hizkuntz zuzenketa

Imanol Azkue eta Baleike

Banaketa

Andoni Ormazuri

J.J. Aizpurua

Publizitatea

943 86 15 45 tel. (Esther)

Inprimategia

Antza Inprimategia
(Lasarte-Oria)

Tirada

1.000 ale

Lege gordailua

SS-405/94

ISSN

1136-8594

Baleike ez du bere gain har-
tzen aldizkarian adierazitako esa-
nen eta iritzien erantzukizunik.

6 ze berri?

Odieta birrintzeko proiektua Udalak



8 ze berri?

Kubaren aldeko Kanpaina

10 elkarrizketa

Made in Euskadi sarituekin

13 bazterbide

Lekeitio, Otoio

20 kirolak

Getariarrak Telmo Deunean



22 kultura

J.R. Llaboriren argazki liburua

Argitalpen honen edizioko laguntzaile:



Zumaia Udalak



Igogailuak Aita Mari auzoan


1973an Erriberen inguruan eraikitako 264 etxebizitzak inauguratu ziren, beste hainbeste bazkideren lanari eta adoreari esker. Koopetariba proiektu haren bultzatzaile nagusia Juan Ignacio Mendia apaiza zena izan zen. Horretaz ari garela, uste dugu detaile polita izango litzatekeela bere lana aitortzea eta auzokoek oroitarri edo monumentu txikiren bat jartzea han inguruan. Hori eta gehiago merezi du...

Urteak aurrera egin ahala, etxebizitza horietan konponketa ugari egin dira, bai teilatuetan, baita egituretako beste hainbat osagaitan ere. Etxeetako ataripeak eta etxe arteko plaza zabalak lasai egoteko eta jolasteko leku aproposak dira han bizi direnentzat. Baina urteen joan etorrian, duela 28 urte ezkonberriak zirenak beste hainbeste urte gehiago dituzte eta asko aitona-amona ere egin dira. Eta hirugarren edo laugarren pisura igotzea, eskuetan erosketak direla, gero eta arazo nabarmenagoa bihurtzen da. Ahal zutenek lehengo kooperatibako etxebizitza saldu eta Eroski inguruan etxe berria erosi dute. Eta etxebizitza aldatu nahi edo ezin dutenek, berriz, etxe zaharretan igogailuak jartzea erabaki dute. Oraingo, bi etxetan hasiak dira igogailua jartzeko zuloa egiten eta beste zenbait zain daude; gainera, seguru, hiru hilabete barru igogailu berriak martxan jartzen direnean, Aita Mari kooperatibako auzotar gehienek hobekuntza hori jarri nahiko dutela. Eta Aita Marikoak ez dira izango igogailua jarriko duten bakarrak; izan ere, igogailua jartzeko lanak ikustera zenbat jende hurbiltzen den ikusita, Zumaiako alde zaharreko beste hainbat lagun ere interesatuta daude. Bost solairuko (lau pisu eta ganbara) igogailua jartzeak hamar milioi baino zertxobait gehiago balio du; beraz, etxebizitza bakoitzak milioi eta laurden inguru ordaindu beharko du, ustegabeko gastuak kontuan hartu gabe. Hori, jakina, atariaren azpian 60 zentimetroko segurtasun zuloa egiteko arazorik ez baldin badago. Izan ere, pare horretan partikularren baten garajea aplikatuz gero, garajearen jabearekin akordioa lortu behar izango baita (normalean garajea erostea), eta horrek dezente garestitzen du azken kostua.

Azkenik, hirigintzaren gainera iruzkin hau bukatzeko, gogorarazi nahi nuke bai Zumaiako Udalak bai Eusko Jaurlaritzak laguntzak ematen dituztela etxe zaharretan igogailuak jartzeko.



Luis Mari Aizpurua



dekorazioa
ALBERDI



696 726188
943 143261

- Eskaiola
- Pladur-a

Alberdi
Gizonezkoen moda



Erribera kalea, 6
Tel. 861155



Hautezkundeen balorazioaz

Azken Baleikean Jon Sudupek hauteskundeez idatzitako iritzi artikulua inguruko baieztapen batzuk komentatu nahiko nituzke, beti ere ikasle ohiak irakasleari zor dion begiruneaz

Lehenik eta behin, nik dakidala, behintzat, hauteskundeotan ez zitzaigun galdetu indarkeria gaitzesten genuen ala ez. Alderdi politikoei eman genien botoa, nahiz eta batzuek –beti bezala– hori baino askoz ere gehiago ikusi zuten.

Egia da, bai, jende asko dagoela indarkeriaren mehatxupean bere ideia politikoengatik. Adibiderik ez zuen eman Jonek, baina nik, berak buruan izango zituenek gain, beste adibide batzuk eman nahi nituzke: duela gutxi alderdi politiko bateko zuzendaritza osoa kartzelan egon da; gazte erakunde bat legez kanpo utzi berri dute; aldizkari, egunkari eta irratiak itxi dituzte; erakunde bateko kide izate hutsagatik kartzelara eraman dute jendea, baita desobedientzia zibil baketsua aldarrikatzeagatik ere. Eta dena pentsatzen dutena adierazteagatik, ez beste ezergatik. Hemen ez dago indarkeri mota bakarra eta alde bakarrekoa; legeek, epaileek eta abarrekoek ere indarrez eta gure borondatearen kontra ezartzen digutena ere indarkeria da, armada, polizia eta guardia zibilez babestuta, gainera. Eta zer esanik ez gerra zikina, estatuak bultzatua eta duela gutxi lotsagabeki barkatua.

Jonek dio elkar hartuta indarkeriari aurre egitea dela demokrata guztion eginkizuna. Baina zein da demokrata? “Nosotros los democratas” edo “Gubaidemokratak” esatea nahikoa al da demokrata izateko? ETaren indarkeria gaitzeste hutsak “demokrata” titulua ematen al du? Hain erraza al da? Demokrata al da espainiar izatea indarrez ezarri nahi duena? Atzo goizera arte Franco baino frankistagoak zirenak demokratik al dira? Demokrata al da elkarrizketa aldarrikatu eta gero bazterketa bultzatzen

bazterrak nahasten

Josu Waliño

9 ordu

Heriotzara zigortuta egon eta errugabetzat hartu duten espainolaren kasua dela-eta, kristorenak eta bi entzun behar izan ditugu tertuliano eta kazetarien ahotan AEBetako justizia sistemari buruz. Munduko herri demokratena ezin omen da konparatu ere egin Espainiako justizia eta demokraziarekin!

Ba erraz konpara daiteke. Galdetu bestela Segundo Marey-ri nola konpara daitekeen berak pasatakoa, Barrio-nuevo eta Verak pasatakoarekin. Bederatzi ordu egon omen ziren bi pertsonaia horiek kartzelan, bederatzi ordu. Langile baten lanaldia gehi ordu estra bat. Ordaindu egin beharko zaie ordu hori, gainera.

Eta Marey-ri galdetu gabe etxean ere antzeko “justiziarik” badugu. Aurreko astean bertan eman zioten baldintzapeko askatasuna Ixiar Arrizabalagari, kartzelan hamahiru urte pasatuta. Baina legez kalean egon beharko lukeen honek beste urte batzuk pasa beharko ditu kartzelan, legea aplikatuko ez dutelako. Kalean behar lukeenak barruan, barruan behar luketenak kalean. Demokrazia non? Justizia zer?

duena? Demokrata al da alderdi politikoak gobernu organoetatik “demokratikoki” kanpo uzten dituenak? Espainiakoa demokrazia al da? Euskal presoek sakabanaketa demokratikoa al da? Atxiloketak eta torturak demokratikoak al dira? Manifestatzeagatik urtebeteko zigorra bete beharra demokratikoa al da?

Azkenik, argi dago bakea eta askatasuna berreskuratzeari eman behar diogula lehentasuna, konponbideak bilatu eta aurkitu behar ditugula, horretan buru-belarri saiatu behar dugula. Uste dut hori dela guztion helburua eta nahia. Zoritxarrez, ordea, iruditzen zait bakeak eta askatasunak ez daukatela esanahi berbera guztiontzat.

IMANOL AZKUE



Ignacio Zuloaga enparantza Tel. 943 861157

EGOKI



Erloju
eta bitxidenda

E. Gurrutxaga plazan



Arantza Aramendi

EGUZKI
G. INMOBILIARIA

Harategi kalea, 15 behea
943 86 22 65 - 609 46 56 37

Odietarako proiektuaren inguruan kezkak eta zalantzak

Onartuta dagoena arau osagarrien berrikuspena da. Bertan jasotzen denez, frontoia bota eta herri eskolaren ondoan egin nahi da berria, kirol zerbitzuen gunea osatuz eta Eusebio Gurrutxaga plaza Odieta auzora zabalduz.

Frontoi txikian lehen eraikin berria egin, Torre-berri zaharberritu eta orain Odieta plazaren inguruan dauden etxeak bota eta berriak egingo lirateke.

Antxoka Agirre

Auzotar gehienek ez dute begi onez ikusten proiektua. "Afektaturiko familien %80 ez gaude ados", diote auzoko komitekoek. Auzoari ekarriko liokeen onura ez dute garbi ikusten. "Guk gure auzoko bizitza daukagu, isila eta lasaia, eta frontoia botata galdu egingo litzateke hori", diote. Auzoa antzinakoa dela ere aipatzen dute, garai batean herriko sarrera



bertatik zela eta horrek duen balorea kontuan hartu beharko litzatekeela.

Hala ere, etxebizitzaren arazoa da gehien kezkatzen dituen. "Gehienok gustura gaude, etxeak egoera onean dauzkagu, batzuk goitik behera berrituta, eta horrelaxe segi nahi dugu. Gainera, etxe berriek toki eta altuera berdina okupatzen badute, eta euren salmentarekin obra guztia finantzatu nahi badute, trukean hasita famili baserria dutenek pisua lortuko dute eta pisua dutenek kreditua ateratu behar. Eta badago jendea, jubilatutak esaterako, ezin dena kredituetan sartu", kontatu digute.

Frontoia botata bistan gelditzen direlako etxeak itxuratzeko beharra balego, denak prest leudeke eurak egiteko, eta inguruan dauden terreno libreetan eta etxe hondatuen tokian,

jabeak ados egonda, eraikitzeko alternatibak ere proposatu dituzte.

"Honetaz guztiaz auzoko bat obra lizentzia eskatzera joan zelako enteratu ginen. Ordurako lehenengo onarpena emanda zegoen eta bigarren fasea martxan. Esan digute lasai egoteko, azalduko digutela guztia, baina gure beldurra da geure proposamenak kontuan hartu gabe proiektuak atzera bueltarik ez izatea", diote.

Otalora eta Odieta proiektuak banantzeko alegazioa eta frontoiaren frontisa eta ezker paretaren zati bat mantentzearena, pilatuko jendeak eskatua, onartu omen ditu Udalak orain arte.

Udalaren azalpenak

Luxiano Pagaegi udal arkitektoak garbi utzi nahi du proiektua aurrera eramateko sistema ez dela desjabe-

Galdona



Mendaro marinela, 1 Tel. 943 861117
943 143346
Juan Belmonte, 15 Faxa. 943 861330

GANBARA



Juan Belmonte, 5 Tel. 943 86 10 57

**ALTZARIAK
OSTOLAZA
AROTEGIA**



Mota guztietako altzariak eta aroztegi lanak

Julio Beobide, 1
TEL: 943 861325

tzapena. "Kontua ez da auzokoei jabetza kendu eta konpentsazioa ematea. Kooperazio sistema baten bidez arituko gara eta auzokoak proposamenari ezezkoa ematen badiote, ez da ezer egingo", dio.

Oraindik hasi besterik ez dira egin, ordea. "Proiektu orokorra, konpentsazioen kalkulua, proiektu urbanistikoa... pauso bakoitza burutzeko plan bat egin behar da, erakusketa, onarpen eta epeekin. Orain arte ordenazio planteamendu bat besterik ez da egin eta dagoen informazioa baino gehiago ezin da eman", esan digu.

Auzokoak ez omen dira galtzen aterako. "Etxe berriekin, frontoi txikian, hau da, lur publikoan ere eraikiz, konpentsazioez gain obra finantza daiteke. Esan nahi da Udalak ez duela inolako irabazi asmorik, erosteko lehentasuna auzokoei izango dutela eta kostu prezioan eskainiko zaizkiela etxe berriak", esplikatu digu. Etxeen balorazioaren inguruan, Udala auzokoen perituekin funtzionatzeko prest dagoela ere gaineratu du.

Eta proiektua aukera ona dela dio. "Herriak lehen mailako espazioa irabaziko luke, orain dagoena, erabat itxia eta nahikoa egoera eskasean dagoen atzealde, ireki, berritu eta beheko plazara bikoiztuz", azaldu digu. Oraingo sarbide aldrebesen orde, zuzeneko sarrera ere izango luke auzoak, eta etxeek legeak eskatzen dituen igogailuak eta aparkalekuak.

Bertakoek aipatzen duten auzoaren antzintasunari ez dio balio handirik ematen. "Auzoa ez dago kasko historikoan sartuta. Balio historikoa duen eraikin bakarra Torre-berri da", dio.

Saneamendu obren atzerapena

Hutsegiteak eta enpresa aldaketa egon dira



Joan den urteko apirilean hasi ziren saneamendu obrak. Herriko hoderia orokor guztia berritu eta araztegi berrira bideratzea zen helburua, han ur beltz guztiak garbitzeko.

Ubiri enpresari esleitu zitzaizkion lanak, seiehun milioiko aurrekontuarekin, erdiak Eusko Jaurlaritzak eta beste erdiak Uren Partzuergoak jarriak, eta amaitzeko urtebeteko epea zuen. Urtebeteko epe hori igaro da, ordea, eta hainbat zulo irekita ikus daitezke oraindik han eta hemen.

Ubirirekin kontaktuan jarrita, bi teknika ezberdin erabili direla azaldu digute. Bata tradizionala, lurra altxa, zanga egin, kolektoreak sartu eta berrituz, eta bestea 'hinca' sistema, berritzailea, GPSz gidaturiko kolektoreen bidez zuloa satorrek bezala lur azpitik egitea. Sistema tradizionalarekin egin da lanik gehiena, eta gutxi gorabehera markatutako epeak bete dituzte, baina 'hinca' sistemarekin arazoak izan dituzte.

Hitz gutxitan esanda, putzutik putzura lur azpitik egiten du zuloa 'hinca'-k, horretarako sistema hidraulikoz bultza eta GPSa duen ordenagailu batek

gidatutako kolektore zulagailudun bat erabiliz. Sistema konplexua da, beraz, teknologia eta ezagutza espezialdua eskatzen dituen, eta gainerako guztia Ubirik berak zuzenean egin duen arren, 'hinca' lana, Gernika pasealekuan gora erabili dena, Eurohinca enpresaren esku utzi zuen azpikontrata baten bidez.

Enpresa horrek putzuak egin zituen lehenengo. Gero, estazio aldeko pabilioi industrialean dagoen putzutik itsas kiroldegiaurrean dagoen putzura bitartean zulatzen hasi ziren, eta hor hasi ziren arazoak. Izan ere, GPSarekin arazoak izan zituzten, nonbait, itsumustuan zulatzen aritu ziren, eta desbideratu egin ziren jarraitu beharreko trazatutik. Hutsegitea ikusirik, Ubirik kontratua eten eta lanak Sonntag enpresa alemaniarrari ematea erabaki zuen.

Batzuekin eten, besteekin tratua egin eta obrak berriz martxan jarri bitartean gelditurik egon dira obrak eta horrek ekarri du atzerapena.

Alemaniarrak Aste Santuaren bueltan hasi ziren lanean, baina hauek ere euren zailtasunak izan dituzte. Txiringito aurrean dagoen putzuan hiru hodiren arteko lotura dago, itxuraz nahikoa kontu konplikatu, eta plataforma berria muntatu behar izan dute aurrera jarraitu ahal izateko.

Txiringitotik moilara bitarteko zuloa egin eta bi putzuak ixtea da orain lehen helburua. Moilan dagoen putzuak trafikoan arazoak sortzen ditu eta hilabete baten buruan, udatiarrak iritsi aurretik, itxi egin nahi dute. Estazioko industriadetik itsas kiroldegira bitartekoa, oraingo, utzi egin dute, dagoen desbideraketa aztertu bitartean.

Asmoa irailerako dena bukatuta edukitzea da.



Era guztietako instalazioak etxebizitza, pabilioi eta herriko argietan

Trenbide 5.pabilioia Tel./Faxa: 943 143402

TAILERRA: Estazioko kalea, 23
Tel. mugikorra: 608 143409



Hamabi tona materialetan Kubarako

Euskal Herriak Kubarekiko badu maitasun istorio bat. Sarritan izaten dugu gogoan han bizi duten egoera gogorra eta egoera horretatik ateratzeko egiten dituzten saiakerak. Bizimodua zertxobait erraztearren ahalik eta laguntza gehien bidali ohi dugu karibear uharte hartara. Gure artean Elan-Euskadi erakundea arduratzen da materiala bildu eta Kubara bidaltzeaz. Orain gutxi eman dute argitara aurreko urtean zehar jaso zen material kopurua eta Kuba barruan non eta nola zabalduko den.

Ia hamabi tona, 11.909 kilo jaso dira materialetan Urola-Kosta eskualdean. Jasotako materiala 803 kaxetan sartu eta Kubara bidali dira. Aipatu denez, eta Kuba bertatik esandakoaren arabera, hemen jasotako materiala behar bezala heldu da uhartera, eta jada banatua izan da ikastetxe, ospitale eta beste hainbat egoitza eta erakundetan. Euskal Herriko laguntza jaso duten lekuak honako hauek dira: Escuela Jesús Lancha (2.490 kilo), Poder Popular de la Pela (5.099 kilo), Hospital Hermanos Almejeira (688 kilo), Instituto Tecnológico Lazaro Peña (2.686 kilo), Consultorio Médico de la Familia (311 kilo), Poder Popular de Guanabacoa (157 kilo), Misioneras Cruzadas de la Iglesia (300 kilo) eta Poder Popular Minas Barreras (178 kilo).

Nahiz eta hasera batetan material bidalketa hau zortzi instituzioetara zuzenduta egon den, jarraian, instituzio horiek beste erakunde

batzuetara bidali dute ahalik eta ondoen aprobetxatzeko.

Kanpaina honetan Elan-Euskadikoei lagundu dieten guztiei eskerrik beroenak eskaini nahi dizkiete eta Zumaia dagokionez, kanpainen parte hartu duten honako ikastetxe enpresa

eta dendei: Zumaia Herri Eskola, Maria eta Jose Ikastetxea, Zehatz zapata denda, Urpemac eta Ajuria, Mutiozabal eta Otaño botikak.

Aurten ere Elan-Euskadi taldeak Kubara bidaltzeko material bilketari ekingo dio. Aurrekotan bezala, eskolako materiala behar da: koadernoak, boligrafoak, arkatzak, kareak eta abar jasoko dituzte. Kanpaina maiatzaren 18an hasi zen eta hilabete osoz iraungo du.



ilarfi
Alai auzategia, 2
Tel. 943 14 33 24

LEIZE
taberna
Juan Belmonte, 6

B. Etxegarai 2, behea
943 86 27 14

YIN YANG

GAZTEEN ERROPA

Basadiren berrurbanizatze lanak azkenean martxan

Auzoa egin zenean material eskasa erabili zelako, errepide eta espaloiek behera egin eta ur banaketarako sarean hausturak eragiten zituela ikusirik, Udalak, 98an, "Basadiren Berrurbanizatze Proiektua" onartu zuen. Joan den urtean egindako berrurbanizatze eskaintzak ez zuen erantzunik jaso ordea. Obra faseka egingo denez ordainketa ere epeka egitekoak dira, eta deialdian lehen urterako ordainsaria bakarrik jasotzen zenez (44 miloi), eraikitzaileen interesik ez zuen piztu. Aurten, urtebeteko atzerapenaz bada ere, bigarren deialdia egin da. Bertan lan osoari dagokion kopurua jaso da, 315 milioi pezeta, eta oraingoan bai, lortu dute eraikitzaileen erantzuna.

Lanak Patxita Etxezarreta aldetik hasi dira, kiroldegi aldera egin eta ibaiaren ondoko espaloian bukatzeko. Ubiri enpresak egingo ditu, esan bezala 315 milioitako aurrekontuarekin eta 18-20 hilabetetako epearekin.



3/4ak bete eta oraindik barruan

14 urte daramatza preso Ixiarrek eta hainbat espetxetatik igaro ondoren Asturias-eko Villabonan dago azken hilabeteetan. Duela astebete espetxeak bere zigorraren 3/4ak beteak zituela baieztatu zion ofizialki. 3/4-aren hau legeak baldintzapeko askatasuna emateko eskatzen duen baldintzetako bat da. Honen ondoren hirugarren gradua lortzea eta kartzela zaintzako auzitegiak presoak birgizarteratzeko modukoa dela dioen deklarazio bat ere eskatzen ditu legeak. Bi baldintza hauek kartzela instituzioen esku daude ordea eta euskal presoek kasuan ez dituzte inoiz onartzen. Beraz, 3/4ak bete arren Ixiarrek espetxean jarraituko du, ehunetik gora euskal presori gertatzen zaion bezala, espetxe agintariek, beste batzuk bederatzi ordutan kalean jarri zituzten agintari berberak, hala erabaki dutelako. Zumaiako Euskal Presoak Euskal Herrira Batzordeak egoera hau salatzeke hainbat ekintza antolatzeke asmoa azaldu dute.

ZALLA
Taberna - Erretegia
* plater konbinatuak
* otartekoak
* oilasko erreak
San Pedro, 4 Tel. 943 862387

 **Zerbitzu Ofiziala**
ZUMAIA MOTOR
Santxo auzoa, 22
Tel./Faxa: 943 143143



Migel Odriozola,
Lagun Arteako zuzendaria:

“Egindako lana gazteen esku uztea da orain enpresa askoren erronka”

Garai batetako Amaia hotelak, betidaniko eibartarrek eta azken urteetako turismoaren gorakadak zeresan handiagoa ematen badute ere, inork ezin du ukatu Zumaia batik bat industria tradizioko herria denik. Ontziolen inguruan eman zen herriaren hazkundera eta 80. hamarkadako krisialdian Carmelo Unanue eta Yeregui bezalako estandarteak itxi baziren ere, Guascor, Ayra Durex eta Xeyek berehala bete zuten haien tokia. Urte batzuetatik hona egoera bikaina bizi du herriko industriak. Ez dago Estazioko edo Korta industrialdeei bistazo bat ematea besterik daukaten martxa ikusteko. Eta egunkarietan ere herriko Lagun Artea enpresa albiste izan da ‘Made in Euskadi’ sari entzutetsua eman diotelako.



Hutsetik hasi eta puntako izatera iritsi diren enpresen ibilbidea saritzen da ‘Made in Euskadi’-rekin. Nolakoak izan ziren zuen hastapenak?

M- Datorren urtean egiten ditugu berrogei urte. Lau lagun hasi ginen, denak ere gazte-gazteak, 17-18 urte, eta beharrak estututakoak. Neuk esaterako bi gurasoak galduak nituen pare bat urte lehenago. Gaur Lagun Artea taberna dagoen tokian tailer txiki bat jarri genuen eta xentimorik ez geneukanez utzitako tornu batekin hasi ginen. Garai hartan tailer mugimendu handia zegoen herrian eta pieza txikiak egiten genituen enkarguz eurentzat. Gero Torreagaren bidez lan asko hasi zitzaigun etortzen, eurentzako eta inguruko galdategietarako muntaiak. Rikardo difuntuak asko lagundu zigun.

Gaur egun merkatu zabala duen enpresa talde bat da Lagun Artea. Egiguzu fitxa teknikoa.

Lau enpresa biltzen ditu Lagun Artea taldeak eta guztira 230 bat langile ditugu. Batetik Lagun Artea bera eta Auxi daude Zumaian. Auxi gazteak formatu eta gero Lagun Artean hartzeko sortu genuen, eta bietan laminaziorako makinaria egiten dugu.

Gero, duela zortzi urte erosi genuen Gasteizko galdategi bat ere badaukagu taldean. Garai hartan galdategietarako muntaiak egiten genituen, gure bezeroak ziren hauek eta ondoa jo zuten. Zor handi bat zeukaten gurekin, 50 langile gelditzen ziren kanean, eta zorraren trukean enpresa hartzeko eskatu ziguten. Halaxe egin genuen eta orain oso ondo doa. Lanpostuak mantendu eta 30 langile berri hartu ditugu.

Laugarren enpresa Italian muntatu dugun injinerutza bat da. Gure alorrean konpetentzia handiena Italiatik etortzen zaigu eta base txiki



Euskal Enpresariaren egunean egin zuten saribanaketa.
Argazkia: Euskaldunon Egunkaria

bat bezala jarri dugu hura, injineru talde batekin, berrikuntzak berehala ikusi eta ikasteko.

Merkatuari dagokionez esan daiteke mundu guztian ibiltzen garela. Oraitxe bertan ordezkari bat daukagu Vietnamen eskaintza bat prestatzen. Beste ordezkari bat joan den asteburuan itzuli zen Costa Rica eta Paraguay-tik eskari batzuekin eta Floridan muntaia bat bukatu berri dugu. Hizkuntzarekin dezenteko arazoa daukat baina makina bat tokitan ibilitakoa naiz ni ere: Tailandia, Indonesia, Filipinak...

Hazkunde ikusgarria izan duzue. Zein da zuen arrakastaren sekretua?

Sekreturik ez dago eta bat bateko hazkunderik ere ez dugu izan. Lana egin dugu erruz, langile onak izan ditugu, eta pixkanaka joan gara hazten, urtean hiru lau berri hartu eta beharra sortzen lan eran lantegian zabaltzeak eginez.

Izatekotan saltoa duela hamar urte eman genuen. Kanpotik enkargatu beharrean enpresan bertan lan egingo zuen injinerutza jarri genuen, titulatuekin, eta ordutik beste martxa batekin gabiltza, bai antolakuntzan eta bai teknologian. Gobernuaren eta Udalaren laguntzak ere asko hobetu dira azken urteetan eta bidea asko erraztu digute.

Gainerakoan zerbitzu ona eta kalitatea eskaintzen saiatzen gara eta horrexek ematen digu lan kartera on bat.

Duela urte batzuk Lopez de Arriortuaren teoriak modan egon ziren. Hor dago kooperatibismoa ere. Zein da zuen lanerako filosofia?

Langileekin harreman ona izaten saiatu gara eta iruditzen zait lortu dugula. Hartu dugun jendea bertan gelditu da, batzuk kasik hasieratik, eta geu adina gogorekin aritzen dira. Hortik aurrera egunez egun merkatuak eskatzen zuenera moldatzen saiatzea da gure filosofia.

Momentu honetan esaterako gazteekin gabiltza buru-belarri. Teknologiaren aldaketetara eta antolakuntza berrietara moldatzeko jende oso prestatua behar da eta aurrera egiteko modu honena gazteei tokia egitea dela ikusi dugu. Azken batean gu 'katonako' gizonak gara. Eta iruditzen zait enpresa asko dagoela egoera berdinean.

Zein da zuen enplegu politika? Nolako da behar duen langilearen profila?

Eskolekin harreman zuzena daukagu. Batik bat Zarauzko Antonianoen eskolatik hartzen ditugu LH2koak eta injineruak Donostiako Injineru Eskolatik. Eta eskaerak egiterakoan herriko jendeari ematen diogu lehen-tasuna. Herrikorik ez dagoenean inguruetako jendea hartzen dugu. Gero, lehen aipatzen nuen bezala Auxi enpresa daukagu jendea praktiketan hartzeko, eta praktiketan sartzen den jendea finko hartzen dugu normalean.

Arazoa, batik bat, eskola profesionaletan izaten da, batzuetan ez baitago

INMOBILIARIA

Amaia

Julio Beobide, 3 behea 943 86 23 01

SAION
taberna

ORTEGA Y GASSET, 3 943 860151

7 MARES

Arrain eta mariskoak

Barazkiak eta aurrez prestatutako jakiak

Zuloaga plaza, 1
Tel. 943862309

AIZPURUA

LIBRERÍA

Aita-Mari auzategia, 17
Tel. 943 861569

Antonio Etxabe

Gizonezkoen erropak

Zumbillo, 4 Tel. 943 861407

ARGIA

ARROPADENDA

Itzurun, 1 Tel. 943 143224

nahikoa jende. Familiek eta ikasleek lehentasuna ematen diote unibertsitateari, prestigio gehiago dauka-eta, baina lan munduan eskari handiena eskola profesionalek dute. Gure organigraman esaterako abokatu bat, bi ekonomilari eta berrogei injineru kenduta beste denak eskola profesionalekoak dira.

Zer suposatzen du zuentzat 'Made in Euskadi' sariak?

Kristoren poza. Egia esan, beste hautagaien izen ona eta tamaina ikusita ez genuen horrelakorik espero eta sariketara birritan eskatu zigutelako joan ginen. Pentsa, ospakizun berdinean Irizar-eko Koldo Saratxagari eman zioten enpresari onenaren saria eta Sener injinerutzari enpresaritzat berrikuntzarena. Geurea joan den urtean Danobat-i eman zioten.

Hauen ondoan geurea bezalako enpresa txiki bat azaltzea egindako lanaren errekonozimendu bat da eta aurrera begira prestigioa ematen digu. Estatuko prentsa guztian ere azaldu gara eta bezeroen telegrama eta dei mordoa jaso ditugu zorionak emanaz.

Merituak partitzen hasita zein aipatuko zenituzke?

Hasteko etxeko langileak, ekipo osoari emandako sari bat izan baita. Familiei ere badagokie zati bat, laneko gora-behera guztiak eurak ere sufritzen baitituzte. Udalari ere bai, beti laguntzen saiatu delako.

Joxe Mari Korta ere aipatu nahi nuke. Euskal enpresariaren egunean, saribanaketan hain zuzen, omenaldia egin zitzaion. Nik ere saria berari eskaini nahi diot. Nire lagunik onena izan zen eta orain bere izena daraman indus-



trialdearen alde lan asko egin genuen elkarrekin.

Aurrera begira, eta saria besapean duzuela, zein dira zuen proiektuak?

Proiektu nagusia Jose Mari Korta industrialdean pabilioi berria irekitzearena da. Aspalditik gaude estazioko honetan, herrian geneukan tailerretik hona aldatu ginen zuzenean, eta zabaltze ugari egin baditugu ere, tope batetara iritsi gara eta azken aldian kabituz ezinda gabiltza. 7.000 metro karratu izango ditu berriak eta bietan, hangoan eta hemengoan, jarraituko dugu lanean.

Eraikita dago eta jendea sartu da barrura, baina trasladoaren zati handiena egiteke dago. Muntaia esaterako hara eramango dugu. Asmoa irailean irekitzea da eta irekitzen dugunean bisitatu nahi gaituen guztientzako ateak irekita izatea pare bat egunez.

Bukatzeko, nola ikusten duzu herriko ekonomia?

Ondo ikusten dut. Lanpostu berriak ari dira sortzen eta asko industria

alorrekoak dira. Niretzat hori garrantzitsua da. Turismoak gora egitea ona den arren, turismoan oinarrituriko ekonomiak bere gabeziak ditu. Zarautzen, esaterako, ekonomiak ondo funtzionatzen du, baina herriak bizitza asko galdu du bertako jendeak hona, Itziarra, Eibarrera edo Donosti aldera jo behar izaten baitu lan egitera. Turismoan zentratu dira eta horrek industriarako inbertsioak eta halakoak ahuldu ditu.

Hemen beti izan dugu industria tradizioa eta duela hogeitaz urte krisi gogorra egon arren, lortu dugu mantentzea. Carmelo Unanue, Yeregui eta beste batzuk itxi egin behar izan zuten garai hartan. Martxan jarraitu genuenok ere igarri genuen estualdia. Baina gero, Guascor eta Ayra Durex martxan jarri zirenean, buelta ematen hasi zitzaion eta duela hamar urtetatik hona oso maila altu batean funtzionatu dela esan daiteke. Joxe Mari Korta poligonoa ere 22 urtetan geldirik egon ondoren duela hiru bat urte lortu genuen martxan jartzea, eta oso ondo ari da betetzen.

GIZARTEKINTZA zentru soziala

KAFETEGIA - JATETXEA

- Eguneko menua
- Plater Konbinatuak
- Kaxuelitak
- Kuadrillentzako afariak

Eusebio Gurrutxaga plaza, z/g Tel. 943 86 17 00

• denontzat irekia



Gipuzkoako Foru Aldundia
Gizarte Zerbitzuetarako departamentua

Arkupe
Okindegia
eta gosariak



Kale nagusia, 2 Tel. 943 861521

zer iruditzen zaizu Zumaiak eta Getariak trainerua batera ateratzea

inkesta

?



Aitor Leiza

Ondo, pena bat da Zumaiako jendearekin ez osatzea. Baina, jendea ateratzeko gogoarekin badago, ondo iruditzen zait.



Javier Carballo

Beste herrietan ere egin da. Aurreko urteetan ondarrutarrak ere izan ditugu. Gainera gehiago fidatzen naiz getariarretaz beste edozein tokikoetaz baino, adibidez zarauztarretaz baino.



Edurne Zubia

Zenbat eta indar gehiago, hobe. "la unión hace la fuerza". Indarrak batzea beste arlo batzutan ere egin beharko litzateke gauzak lortzeko.



Manuel Campos

Ondo ateratzen bada... bakarrik ezin badute trainerua atera, hobe biak batera.



Manu Zubia

Ondo iruditzen zait inguru honetakoak elkartzea atera ahal izateko. Getariarra jende ona da.



Eneka Arrieta

Beste erremediorik ez badago egin beharko da, azken errekurtsio bezala. Kontua herriko jendeak kirola egin ahal izatea da.

ad

**AUTOS
ZUMAIA**

Urola plaza 3-5
Tel: 943 86 14 85



AXIER KIROLAK

Ortega y Gasset, 2
Tel: 943 86 22 06



**OSKARBI
KIROLAK**

Alai Auzategia, 14 behea
Tel: 943 14 31 12

olarro zopa

Inaxio Tolosa. Aktorea

Historia

Odieta auzoa



1610 inguruan Baltasar Narruondo herriko bikarioak eginiko biztanle guztien zerrendan (kaletarrak bakarrik), Zumaian 137 etxe eta 418 biztanle agertzen dira, horietatik 20 etxe eta 68 biztanle Odieta auzoan (San Jose izena duena, Arru-kale bezala ezagutu izan duguna).

Zerrenda horretan etxeen izena eta bertan bizi direnen izen-abizenak azaltzen dira, gehienetan etxearen izenaren orde bere jabearen eta jabe izandakoen izenekin.

Hona hemen garai hartako 20 etxeen zerrenda banaka-banaka:

Ondarra, Yturricoa, Gurmendi, Tolare-berrieta, Urzuriaga, Astigarreta, Fraileena, Duana, Mariantoniarena, Lopez Yrure, Maese Domingo Arriolarena (Torre-berri), Martin Urzuriaga, Joanes Sarasua, Marcos Arriola, Bartolome Garro, Joan Urzuriagarena, Pedro Arpide, Geronimo Ubillus, Grazian Arantzeta eta Domingo Eyzaga.

Esan behar dut auzo honetan Erdi Aroko egitura batzuk mantendu egin direla (kaltzada puska bat, adibidez), eta 1888an eraikitako frontoiak beti lagundu izan duela auzo hau ezkutatzeko, herriko plazaren ondoan egon arren. Eta ziur nago bertako etxeak eraberritu eta txukunduz gero, beheko plazan bertan, antzinako auzo "kasta" eta ederra deskubrituko genukeela.



Belen Golmaio. Euskara teknikaria

Herri euskara

Zumaiarren hiztegia

Ezin ukatu zumaiarrok badaukagula geure hiztegi eta hizkera berezia eta baita geure esaerak eta hitz egiteko modu berezia ere.

Egia da, era berean, gure hiztegiko zenbait hitz gero eta gutxiago entzuten direla eta, horrexegatik, hain zuzen, Baleike herri-aldizkariak emandako aukera hau aprobetxatuz, hitz horietako batzuk aipatu nahi ditut gaur: taosa, ostarrena, arraldea...

Taosa: Kostaldeko inguruko herrietan itsasotik lainoa sartzen denean itsas lainoa, behe lainoa edo antzeko zerbait dela esango dute, baina guk badakigu, gure herrian itsasotik lehorrera lainoa sartu eta gauzak ikustea galarazten duenean, Zumaian taosa dagoela edo taosa sartu dela.

Eta hitz honen nondik-norakoa jakin nahian hiztegiatarara jota ere, ez dut inoiz ezer aurkitu, ez hiztegi zaharretan eta ezta berrietan ere.

Ostarrena: Ostarrena zer den jakin nahi izanez gero, Algorriko hondartzara eta haitzetara joatea nahiko dugu. Ikusteko politta da, baina haren sastada ez da gozoa izaten.

Kostaldeko beste herri batzuetan, itsas trikua, itsas lakatza, e.a. deitzen diote. Guretzat, berriz, hori ostarrena da.


Euskarazko hiztegi berrietan ez da hitz hau jasotzen, baina bai hiztegi zahar batzuetan eta horietako bitan gainera, Zumaiaiko hitza dela aipatzen da (R.M. Azkueren "Diccionario Vasco-Español-Francés" 139 orrialdea. Eta "Diccionario Retana de Autoridades del Euskera" 3.183. orrialdea).

Arraldea: Orain dela urte batzuk oso normala zen esatea eta entzutea; arraldera bota, arraldetik jaso, arraldean agertu, e.a. Gaur egun, berriz, arralde hitza galtzen ari da. Eskerrak noizean behin ETBko Goenkale saioan Arraldera joaten garen!

Eta Zumaian eta inguruetako herrietan, Getarian adibidez, erabiltzen den hitza izanda ere, ez dago jasota euskarazko hiztegi berrietan. Antzeko hitz asko jasotzen dira; itsasaldea, itsasbattera, itsasertza, itsaslabarra, e.a., baina arralde ez da azaltzen.

Zer esan nahi ote du horrek? Hitz hauek galtzeaz daudela edo galduta daudela?

Gu, badaezpada, gure hiztegia osatzen hasiko gara herriko hizkeraren altxorra bertan jasota eta beti eskura eduki-tzeko.



Karmengo Ama, 14
E-20749 Arroa (Gipuzkoa)
Tel/Fax: +34 943 14 83 06
e-mail: bakun@euskalnet.net

finès
french
euskara
anglantí
español
catalonian
suomi
basc
català
finnois
français
anglés
catalán
français
castellano
finnish
inglés
baski
catalán

Bakun
ITZULPEN ETA ARGITALPEN
ZERBITZUAK S.L



BASUSTA
ERRETEGIA

Patxita Etxezarreta, 25 Tel: 943 862073

EGUZKI
PUB
Koktel bereziak
Basadi Auzategia, 9-A 2-B




Izaga Garcia. **Dietista**

Medikuntza naturala

Sendabelar garrantzitsuenak (I)

Antzinatek sendabelarrak kultura askotan oso erabiliak izan badira ere, pasa berri dugun mende hasieran, eta industria kimikoaren eraginez, sendabelarren erabilera gutxiagotu egin zen. Gaur egun, beraien eraginkortasuna ikusita, berriro erabiltzen hasi gara. Gutxi gorabehera 70.000 landare erabil daitezke sendagarri bezala eta horietatik 500 inguru dira garrantzitsuenak. Laburpen gisa, horietako batzuk, erabilienak, aipatuko ditut:

- **Azeri buztana** (*Equisetum arvense*). Mineral ugari ditu, bere erabilera garrantzitsuenak pixa eragiteko (diuretikoa) da. Bere hostoak infusioan edo tantetan erabiltzen dira.
- **Alkatxofa** (*Cynara Scolymus*). Gibela garbitzen du eta garbigarria. Batez ere bere estraktua erabiltzen da, tantetan edo kapsulatan.
- **Asunak**. Hainbat mota daude, baina batez ere orlegia izenekoa erabiltzen dugu. Eragin garbitzaileak, pixa eragitekoak ditu eta odoleko azukrea jaisten lagunduko digu. Infusioan, zopan edo entsaladan hartzen da.
- **Baratxuria** (*Allium Sativum*). Eragin eta propietate gehien dituen sendabelarra da. Tentsio altua jaisten du, odola garbitzen du, kolesterola jaisten du, antibiotikoa da, defentsak aktibatzen ditu, zizareak botarazten ditu... Gordinik, estraktuan, perletan, etab. hartzen da.
- **Belar bedeinkatua** (*Valeriana Officinalis*). Bere sustraiak lasaigarri moduan erabiltzen dira. Infusioan hartzeko, zaporea oso atsegina ez denez, pilulatan erabiltzen da.
- **Berbena belarra**. Bere erabilera nagusia buruko mina kentzeko izaten da. Horretarako, infusioan edo enplastuan erabiliko dugu. Infekzioetan ere erabiltzen da, enplastuan, zornea ateratzen baitu; adibidez, sinusitisa, gaiztotutako zaurietan, etab.



Josu Waliño. **Informatikaria**

Olarrua amaraunean

Informatika euskaldunduz

Euskara, informatika eta Internet uztartzen dituen beste pare bat ekimenen berri eman nahi dizuet oraingoan.

Lehenengoa, Internet-eko atari berri bat: Zientzia.net (www.zientzia.net). Hil honen hasieran aurkeztu dute zientzia eta teknologiaren zabalkundean oinarritutako atari honek hainbat zerbitzu eskaintzen dizkio erabiltzaileari, hala nola, zientzia hiztegia, milaka artikulua, dosierak, testu libreko bilatzaile bat, etab. Eta etengabe eguneratzen dituzte edukiak.

Bigarrena, antibirus berri bat da. Pandaren azken antibirusa, Titanium izenekoa, euskaraz dago salgai. Merkatuko antibirus onena dela dioten hau Bilbon garatu da, eta azkenean euskaraz ere merkaturatu dute. Ordenagailua aztertzeaz gain, posta elektronikoa eta Internet-etik behera kargatzen ditugun fitxategiak ere aztertzen ditu. Erosi nahi izanez gero, www.elhuyar.com/denda helbidean eskura daiteke 4.000 pta. inguruan.

Hirugarrena, oraintxe hasiko den berri bat: Linux sistema-eragilea euskaratzen hasiko dira laster Elhuyar eta UZEI. Badirudi, beraz, informatika euskalduntzen ari zaigula pixkanaka.

expert 

ELEKTROGAILUAK

MERTXE AIZPURUA

Etchezarreta, 6

Tel. 943 861078



TXOMIN AGIRRE KAIA

TEL. 943 86 21 81



Amaiako plaza z/g

Tel. 943 860959

Telmo Deuna Zumaia-Getaria izenarekin uretaratuko da aurten



Azken asteetan makina bat hitz egin da Aita Mari elkarteak getariarrekin batera trainerua aterako zuela-eta. Kontuak kontu, eta azken bileretan gauzak ez badira okertzen, hala izango da. Denboraldian Telmo Deuna Zumaia-Getaria izenarekin uretaratuko da. Hori bai, arraunlariak soinean eramango dituzten kamisetak gorriak izango dira, traineruaren antzera. Herriaren ezaugarrietako bat ez dugu galduko, behintzat.

Trainerua elkarrekin ateratzearen arrazoiak galdetzean, Luis Mari Goikoetxea 'Goikok' argi utzi du denboraldian parte hartu nahi bazen, hori zela aukera bakarra, Aita Mariko arraunlarietako bakarrik ezinezkoa izango baitzen taldea osatzea. "Aurreko urtean bi getariar izan genituen taldean eta aurtengoan gehiago etorriko dira. Bi klubaren artean hitz egin dugu eta trainerua batera ateratzea hitzartu dugu", dio Goikok. Getariarrek nahiko

maila polita erakutsi dute trainerilen ligan. Horren adibide bezala, hor dago ligan, zumaia-Getaria berdin dute, lortu duten hirugarren postua. Azken estropadan Zumaia lehenago heltzeagatik lortu zuen Aita Marik brontzezko domina.

Denboraldi txukuna egiteko, beharrezkoa da 18-19 lagunekoko taldea, eta beste klubetako arraunlarien parte hartzerik gabe ezinezkoa izango zen Telmo Deuna estropadetan ikustea. "Oso justu geunden jende aldetik eta beharrezkoak genituen kanpoko arraunlariak. Beste klub batzuekin hitz egin genuen, baina batzuek bi traineru atera behar zituztela, eta beste klub batzuetako arraunlariak traineru denboraldirako taldez aldatu zirela, azkenean Getariarekin batera ateratzea erabaki dugu", azaldu digu Aita Mariko lehendakariak.

Arraunarentzat oso etorkizun beltza ikusten du Goikok. Alde batetik,

enpresen jarrera salatzen du. Enpresek ez diete batere laguntzen kirola egin nahi duten langileei. Erreleboko kontratuak direla-eta, langileek gauez, egunez, asteburuetan, edozein momentutan egin behar dute lan, eta horrela nekez aritu daiteke arraunean edo beste kirol batean behar bezala. "Denei 'gure kirola, gure deportea' hitzekin ahoa betetzen zaie, baina laguntzen ez badute jai daukagu. Enpresek esku-balagoak izan behar lukete gazte hauekin, bestela gure kirola hondamendiratuko da", aipatu du Goikok.

Bestetik, arraun talde batzuen jarrera ere ez du gogoko Goikok. Talde horiek, eta ez du izenik aipatu nahi izan, diru sarrera garrantzitsuak izan dituzte, eta ondoko talde txikietatik arraunlariak hartzen hasi dira eta taldeak izorratu dituzte. Goikoren esanetan, beharrezkoa da talde txikiak ondo eramatea beraien artean. "Batak besteari laguntzea behar-beharrezkoa da, bestela talde handi horietan ez dago zer eginik. Arraun munduan dirurik sartzen ez bada, jai izango da. Lau talde mantenduko dira, dagoeneko dirua dutenak. Uste dut gure kirola horrela galtzea penagarria izango litza-tekeela", dio Goikok.

Arraunaren etorkizuna iluna bada ere, traineru denboraldia laster jarriko da martxan. Telmo Deunarentzat lehen estropada ekainaren 24an izango da, Errioxako Rasillo urtegiaren. Uztailaren 7 eta 8an, Pasai San Pedroko uretan jokatu da Traineru Ligarako sailkapen proba. Ea gure trainerua sartzen den!

English School
Harvest

Ingeleseko klaseak adin guztietan
San Jose, 11 bis Tel. 943 143334

ILEAPAINDEGIA



San Telmo, 12
Tel. 943 860760

ITSASKI
SUPERMERKATUA

Urumea kalea z/g
Tel. 943 143058



Pala txapelketaren azken partiduak

Amaitzear dago orain hilabete batzuk hasi zen Zumaiako Pala Txapelketa. Azken asteburuetan, ostiral iluntzean eta igande goizean jokatu dira pilota partiduak Odieta pilotalekuan. Makina bat bikotek hartu dute parte, bai gizonezkoak, bai emakumezkoak. Lehen faseak jokatu ondoren, hilaren 22 eta 24an jokatu dira final-erdiak. Ohikoa den bezala, bi maila izango dira: San Pedro eta San Pedrin txapelketak. Gizonezkoen artean, San Pedro Txapelketako final-erdietan Arratibel Anaiak eta Gorostola-Uranga, eta Alkorta-Urbieta eta Zuazobide-Carballo bikotea aurkituko ditugu. San Pedrin Txapelketan, aldiz, finalerako burrukan Gaizka-Buenetxea eta Unanue-Unanue, eta Ostolaza Anaiak eta Urrutia-Albizu bikoteak arituko dira. Aldizkaria inprentara eramateko unean oraindik ez zegoen erabakita emakumezkoen artean zein izango ziren final-erdiak jokatu dituzten lau bikoteak. Kontuak kontu, pala txapelketako finalak hilaren 22an jokatu dira Odieta pilotalekuan.



Areto futbol txapelketa

Txapelketa bat amaitzear badago, pala txapelketa alegia, orain gutxi hasi da jokatzeko Lubaki kiroldegian Udako Areto Futbol Txapelketa. Hilaren 6an hasi ziren jokatzeko lehen partiduak eta uztailaren amaieran bukatzea espero da. Orotara 30 taldek eman dute izena, 22 gizonezkoetan eta 8 besterik ez emakumezkoetan. Ia egunero jokatu dira partiduak, igandetan eta astelehenetan izan ezik. Edozein aspertzeko adinako partidu kopurua.

UDAKO IKASTAROAK

**Alemanez
ZARAUTZEN**

**Ekainak 27tik aurrera
matrikula irekita!!**

K. Nagusia 38, 2. bulegoa
Tel. 943 83 56 09



AUTO-ESKOLA



ZUMAI A

Basadi, 12 behea Tel. 943 861018

- Gida baimen guztiak ateratzeko baimendua

- Praktika eta azterketak Azpeitian

- GURE HELBURUA: Gidari trebe eta profesionalak egitea

TSY-BITSY
SCHOOL OF ENGLISH

Ingelesko klaseak maila guztietan
Cambridgerako azterketak

Basadi, 2

Tel. 943 862373

ileapaindegia

I Z E T A

Urumea, 6 Tel. 943 862083



**taberna
JUSTA**

eguneroko bazkariak

Erribera kalea, 20

Jule Ladakh!, tibetarren bizimoldea

Jule Ladakh! Hori da Juan Ramon Llavori Romatet zumaiaarak argitaratu berri duen liburuaren izena. Liburuan azaltzen den bezala, Jule hitzak Ladakh-en kaixo, agur, mesedez edo mila esker esateko balio du. Ladakh, aldiz, Indiaren iparraldean kokatuta dagoen herrialdea da. 'Ilargiaren lurraldea' edo 'Tibet txikia' bezala ere ezagutzen den urruneko lurraldea da Ladakh. Orain urtebete inguru joan zen zumaia hau inguru haietara, eta han ateratako argazkiekin osatu du lehen liburu hau. Honez gain, eskualde hartan bizi diren haurren irudiekin erakusketa martxan jarri du argazkilari zumaiaarak.

Jada bi alditan joan da Juan Ramon Llavori Tibet ingurura. Ladakh bigarren bidaian ezagutu zuen.



Ladakh eta bertako biztanleak hain barruraino sartu zitzaizkion, ezen, behar bat sortu omen zitzaion: bertan bizi izan zuen esperientzia kontatzea argazki eta testuen bitartez. Bertako jendea, bizimodua, arkitektura, paisaiak, bizilagunen eginbeharrak, budistak eta abar gure artean zabaltzea da liburu honekin Juan Ramonek azaldu duen asmoa. Beretzat oso lurralde berezia da Ladakhkoa, bai bertan bizi den giroa eta baita jendea ere. Jendeak naturarekin duen harremanak txunditu egin omen du eta mendebaldeko zibilizaziotik datorren pertsona batek ikasi beharreko gauza asko omen ditu Himalaia mendikatearen magalean kokatutako herri honek. Hori dela-eta, aurten ere bidaia egiteko asmoa azaldu du Juan Ramonek.

Liburua argitaratu eta banatzeaz Juan Ramon Llavori bera arduratu da. 2.000 aleko lehen tirada izango da kalean eta 6.000 pezetako salneurria izango du liburuak. Etekinik ateraz gero, lehen asmoa liburua argitaratzearekin sortu zaizkion zorrak ordaintzea izango da. Gelditzen den dirua bi

zatitan banatuko du: lehen zatia datorren urtean antolatu nahi duen erakusketa berri batentzako izango da eta beste zatia Tibetean lan egiten duen Rokpa erakundearentzat. Erakunde horrek 1993an tibetar umezurtzentzat ikastetxea eraiki zuen Tibetean Euskal Herritik jasotako dirulaguntzekin. Eskola horretan haurrek hamar urtetan zehar medikuntza tibetarra ikasten dute, eta jarraian zortzi urtetan bertako herrixketan sendagile lanak egiteko konpromisoa hartzen dute. Erakundea eta eskola laguntzea da Llavoriren asmoetako bat.

Donostian dagoen Gipuzkoako Argazkilari Elkartean aurkeztu zuen Juan Ramonek bere liburua. Aurkezpenarekin batera, Ladakhko haurrekin osatutako argazki erakusketa ere zabaldu zen. Hilaren 27a arte egongo da zabalik erakunde horretan erakusketa. Jarraian, hilaren 28tik aurrera argazki horietako batzuk Zumaiaiko Oxford aretoan ikusteko aukera izango da. Erakusketetan salgai egongo da liburua.



- Arrainak eta haragiak aukeran
- Eguneko menua
- Jangela klimatizatua

Juaristi
JATETXEA

Basadi auzategia, 10 Tel. 943 861853



Ikusle gorakada zine forum saioetan

Amaitu da Ostarrena Zine Klub Taldeak antolatzen duen zine forum denboraldia. Hollywoodeko zinema komertziala alde batera utzi eta munduan zehar egiten den zinema 'ezberdinari' atea irekitzen dien emanaldiak. Beti ere jende multzo polita erakarri izan badu ere, aurtengoan errekor guztiak gainditu dituela aipatu behar da, inoiz baino jende gehiago hurbildu baita hamabostean behin Aita Mari zinemako emanaldietara.

2000ko urrian hasi eta aurtengo ekaina bitartean, 19 film eskaini dira, aurreko denboraldian baino bi film gehiago. Eskaintza horren barne era guztietako pelikula ikusi ahal izan dira, melodramak eta komediak, Estatu Batuetako faktoretatik ateratako azken produktuak edo zinema munduan hain ezagunak ez

diren herrialdeetatik etorritako pelikula txikiak. Denboraldia antolatzeko unean, Ostarrenakoak kontu handiz aritu dira pelikula mota ezberdinak txandakatzen: pelikula gogor baten ondoren, arinago bat; film estatubatuar baten atzetik, europarra edo Asiakoa. "Ikuslea pozik eduki nahi bada, mota ezberdinetako filmak

eskaintzea beharrezkoa da, zinemara hurbiltzen den lagunak gauza ezberdinak ikusteko gogoia izaten baitu", azaldu digute.

Hala ere, eskaintako pelikulen kalitatea alde batera utzita, taldekideak gehien harritu dituen ikusleen kopuruaren igoera izan da. Orain bospasei urte hasi zirenetik, aurtengo hurbildu da jende gehien. Ostarrenakoek ez dute hain garbi igoeraren arrazoia. Batzuen esanetan, eskaintako pelikulen maila izan daiteke, urte osoan zehar oso film onak programatu baitira. Aipagarria da, gainera, aurtengoan ez


Bailar en la oscuridad, ikusle gehien erakarri duen pelikula.

dutela 'hankarik sartu' eta maila eskaseko pelikularik eskaini. Horrek, agian, jendearen konfiantza piztu du. Ohiko 'famiako' ikusleez gain, jende berria hurbildu omen da aurtengoan, inola ere zine forum saioetara hurre-ratzen ez zena. "Agian 'zine forum' izenak duen kutsu intelektualak aurreko urteetan atzera botako zuen ikusle bat baino gehiago, baina zer motatako filmak eskaintzen ditugun ikusita, jende hori saioetara hurbiltzen hasi da", aipatu digute.

Gorakadaren beste arrazoi bat, Ostarrenakoen esanetan, azken hilabeteotan astebururo eskaini izan diren pelikulen maila eskasa izan daiteke. Aipatu dutenez, inoiz baino film txarragoak bota dituzte Zumaian. "Zinemara joaten den norbaitek pelikula on bat, edo zirkuitu komertzialek kanpo geratzen zen film bat ikusi nahi bazuen, bi aukera zituen, kanpora joan edo zine forumeko saioetara joan", aipatu digu taldekide batek.

Aurtengo pelikulei dagokienez, eta azken saioa kontuan hartu gabe, jende gehien erakarri duena 'Bailar en la oscuridad' melodrama musikal ikaragarri eta negar eragile daniarra izan da. Guztira 155 lagunek ikusi zuten film hori. Horren atzetik, 'Magnolia' (145 ikusle) eta 'Snatch, cerdos y diamantes' (144 ikusle) daude. Bestalde, ikusle gutxien izan zuen pelikula gabonetako zinema klasikoa izan zen: Jean Renoir-en 'La gran ilusión' ikustera 60 lagun besterik ez zen joan.

Udako atsedenaldiaren ondoren, datorren denboraldia prestatzen hasiko dira Ostarrenakoak. 2001-2002 denboraldirako pelikula oso onak omen daude. Adi egon beharko dugu.



* Eguneroko bazkaria
 * Pintxo eta bokatak
 * Koadrilentzako menu bereziak
 * Kazuelitak eta plater konbinatuak

Erribera kalea, 16
Tel. 943 862517

Baltasar Etxabe, 5
 Tel. 943 14 31 35

- Depilaketa (beroa, epela)
- Minik egiten ez duen depilaketa elektrikoa
- Aurpegia edertzeko sendabideak
- Gorputza edertzeko sendabideak
- Lurrindegia
- Solarium-a

serigrafia
 *kamisetak
 *txiskeroak
 *paperezko poltsak, e.a.
baltasar etxabe 7 tel: 86 05 69



Baleike Zumaiaiko herri aldizkariak **VII. Komiki Lehiaketa** antolatuta du. Bertan, komikigile guztiak parte hartzera gonbidatzeaz gain, bereziki zumaiaarrak tentatu nahi ditugu lan pixkat egitera.

1. Lehiaketan **14 urtetik gorakoek** har dezakete parte.
2. Komikiak **jatorrizkoak eta argitaratu gabeak** izango dira. Gaia librea da, eta neurri eta orrialde-kopuruari dagokionez, A-4 neurriko 2 orrialde, edota A-3ko orrialde bakarrekoak izango dira lanak.
3. Marrazkiak **zuri-beltzean** eginak izango dira, eta edozein teknika erabili ahal izango da.
4. Lanak bakarka edota talde lanean aurkeztu ahal dira. Hori bai, **euskarazko** lanei bakarrik zuzendutako lehiaketa da gurea.
5. Lanak 2001eko **uztailaren 27a baino lehen** aurkeztu beharko dira, helbide honetara bidali edota bertan utziz:

BALEIKE. Juan Belmonte 29 behea. 20750 ZUMAIA

Lanak bi gutunazaletan aurkeztuko dira. Handian lana sartuko da, azalean "Zumaiaiko VII. Baleike Komiki Lehiaketa" eta lanaren izenburua jarriko dira. Gutunazal txikiaren kanpoaldean lanaren izenburua jarriko da eta barruan datu pertsonalak sartuko dira: izen-abizenak, helbidea eta ahal bada telefono zenbakia ere bai. Ez lanean ez gutunazaletan ezingo da egilearen nortasuna adieraz lezakeen izenik jarri.

6. Epaimahaia gai honetan adituak diren zenbait kidek osatuko dute, eta abuztuaren amaierarako emango dute aditzera beren erabakia.
7. Epaimahaikideen iritziz lanek gutxienezko kalitatezko ez balute, sariak eman gabe gera litezke. Bestalde, originaltasuna eta beste zenbait alderdi kontuan hartuta, akzesit bat emateko aukera ez da baztertzeko.
8. Honako sari hauek ezarri dira:
 1. **saria 50.000 pta.**
 2. **saria 30.000 pta.**

Zumaiaarrik onenarentzat 20.000 pta.
9. Saritutako lanen jabe Baleike egingo da, eta aldizkarian bertan nahiz bestela argitaratzeko eskubidea izango du. Saritu gabekoak ere argitaratu ahal izango ditu, egileekin hitz egin ondoren.
10. Saritu gabeko lanak Baleikeraren lokalean egongo dira lehiakideen esku, epaia eman eta hilabeteko epean. Jasotzen ez diren lanak Baleikeraren jabe gopean geratuko dira.
11. Lehiaketa honetan parte hartzeak oinarri hauek oso-osorik onartzea dakar, eta zalantzarik izanez gero antolatzaileek argituko dituzte.



Loitz

- * Eskola eta bulegorako materiala
- * Enkoadernazioak
- * Fax publikoa
- * Aldizkari eta opariak

Erribera, 4

Tel./Faxa: 943 143422



Zoruen kutxilaketa eta barnizaketa
Parketa jartzea

Estazioko kalea, 12

Tel. 943 861412

Fitxa-teknikoa

Izenburua: ¡Tente, iracundo otomano!

Idazlea: Andres Sopeña Monsalve

Argitaletxea: Plaza y Janés

Urtea: 2001



Mozorroaren atzean ezkutatzen dena

Orain urte batzuk, Andres Sopeña Monsalve idazleak sekulako arrakasta izan zuen bere (eta belaunaldi oso baten) haurtzaroaren berri ematen zuen liburu batekin, El florido pensil algara eragi-learekin. Halako mamia zuen liburu hark, ezen antzerkirako ere egokitu baitzen. Antzezlan hark lortu zuen oihartzuna denok dugu gogoan, Zumaian pare bat aldiz ikusteko aukera izan genuen-eta.

Haren ondoren, Sopeña Monsalvek ildo beretik jarraitu zuen. Lehenik eta behin, La morena de la copla argitaratu zuen eta orain ¡Tente, iracundo otomano! honekin dator. Argitalpen berri honetan El Guerrero del Antifaz da protagonista, hau da, frankismoaren garaiko komikietako pertsonaia arrakastatsua. Espainiar heroi hau 22 urtean jarraian, astero agertu zen kioskoetan. Hasiera batean abenturetako komiki hutsak bezala ikusten baziren ere, bere ideologiari pixka bat begiratuta, Frankismoaren ezaugarri guztiak betetzen zituela ikusten dugu: Historia 'ofizialaren' irakurketa, katolizismo integrista, arrazakeria, xenofobia, gainontzeko herrien askatasunaren zapalketa, etab.

Pertsonaia honen berri emateko, idazleak ez du tonu diskurtsiboa erabili. Horren ordezkari umorea eta ironia aukeratu ditu Sopeña Monsalvek. Horrela, liburua irakurtzean, beti ere irribarrea dugu aurpegian. Arratsalde dibertigarria pasatzeko aukera bikaina

ZINEA



Todos los caballos bellos

Zuz: Billy Bob Thornton

Akt: Matt Damon, Henry Thomas, Penelope Cruz.

Amerikar zinemaren genero maitatuenetakoa, mitikoaena, westerna, krisi larrian dagoela ez da inongo berria. Pasa berri dugun mende amaieran izan zen generoa berpizteko saiakera bat, gehienbat Clint Eastwooden *Unforgiven* apartaren ondoren, baina dena alferrikakoa izan zen. Azken urteotan industariatik kanpo bizi diren zinemagile batzuek egin dituzte generoaren barruan halako film batzuk, hala nola, Jim Jarmuschen *Dead man* esperimentalak. Europar zuzendariak ere hain amerikarra den generora hurbildu dira. Adibide bezala, oraindik hemen estreinatu ez den (eta ziur aski estreinatuko ez den) *The claim* eta orain hiru urte Stephen Frearsek egin zuen *The Hi-Lo country* lasaiegia daude.

Azken horren ildotik doa hemen komentatzen dugun film hau. Bigarren Mundu Gerraren ondorenean girotutako western intimista dugu honako hau. Hemen ere arrantxoak, zaldi basatiak, gizonen arteko adiskidetasuna eta westernaren akabera aurkitzen dira. Intimismo horretan aurki daiteke *All the pretty horses* honen hutsunerik handiena, pasarte erromantikoak zeharo aspergarriak baitira. Maitasun istorio horrek ez du indarrik eta filmari kalte handia egiten dio. Beherakada horretan zer ikusi handia du Penelope Cruzen antzezlanak. Bada ordua esateko zein txarra den aktore espainiar hau.

Baditu, bai, momentu onak western honek, oso onak gainera. Bi cowboyek bizi duten abenturak ikuslearen interesa pizten du. Une horietan igartzen da zer nolako indarra duen pelikularen oinarri izan liburuak.

Pelikula oso irregularra da. Irregularitasun horren arrazoietakoa bat pelikularen iraupena aldatzea da. Billy Bob Thornton zuzendariak ia lau orduko muntaia egin zuen. Estudioak, aldiz, iraupena bi ordura moztu zuen.



Rakel
estetika

kiromasajea
tatuajeak

Aita Mari 42, behea

TEL: 943 862093

Rosi
garbiketak

- * Etxeak eta dendak
- * Enpresa eta auzo lanak
- * Erropa garbiketa eta tintaketa

Basadi,3-A
Tel. 943 861670



Basadi 5C
943 143404

- Elikadura, belarnak, buztinak, tratamenduak.
- Kontsulta naturista
- Osteopatia, masajea
- Dietak
- Estetizista
- Solariuma
- Tai-chi, masaje eta Reiki ikastaroak

ekaina agenda



6

ERAKUSKETA
Julio Mendikuter-
eren argazkiak
Ekainak 23a arte
Forondan

7

ERAKUSKETA
Alfonso Martin
Casas
Ekainak 24a arte
Oxforden

~~15~~

ANTZERKIA
"Ardoaz"
iraila arte atzeratuta

27

LEHIAKETA
Zumaia loretan
2001
Goizean zehar

24

Igandea

11:00etan
Beheko plazan

ARTISAU AZOKA

Udar garaiari hasera emateko Artisan azoka izango dugu gure artean hilaren 24an. Goizean txalapartaren doinuarekin hasi eta egun guztian zehar artisauak lanean izango dira jende aurrean. Postu ezberdinak izango dira: pastelak, gaztak eta beste janari gaiak saltzen dituztenak; jostailuak, larruzko gauzak saltzen dituztenak, etab. Haurrentzat buztin eta otargintza tailerrak antolatuko dira. Esan bezala, txalaparta entzuteko aukera izango da, eta baita ere trikitixa ere, Elustondo ahizpen eskutik. Azokari amaiera emateko Luhartz taldearekin erromeria izango da.

EUSKARAZKO IKASTAROETARAKO DIRULAGUNTZAK

Udaleko Euskara Batzordeak euskarazko ikastaroetarako dirulaguntzak onartu ditu. Alde batetik Euskal Herriko Unibertsitateko uda ikastaroetan parte hartzeagatik dirulaguntzak jasotzeko aukerak izango dira. Dirulaguntza hauek eskuratzeko beharrezkoa izango da Zumaian errol-datua egotea, ordaindutako matrikularen ordezkagiria eta asistentzia ziurtagiria aurkeztea. Baldintza guztiak betez gero, matrikula kostuaren %75 itzuliko da eta langabezian egotea ziurtatuz gero, matrikularen balio osoa. Bestetik, euskara ikasteko dirulaguntzak ere emango dira. Dirulaguntza jasotzeko Zumaian errol-datua egon beharko da eta klaseetan gutxienez %75eko asistentzia egiaztatuzko ziurtagiria eta ordaindutako matrikularen ordezkagiria aurkeztu beharko dira. Baldintza guztiak betez gero, matrikula kostuaren %75 itzuliko da eta langabezian egotea ziurtatuz gero, matrikularen balio osoa. Informazio gehiago nahi izanez gero, Udaletxeko Euskara Zerbitzura 943865025 telefonora deitu bulego orduetan.

ESTAZIO Kalea, 25 20.750 ZUMAIA
GIPUZKOA Kalea, 33 C 3º 20.800 ZARAUZ
(GIPUZKOA)
Tel. (943) 86 07 78 - (943) 14 09 40

**Jardinen diseinu
... mantenimendua**
Nekazaritza zerbitzuak
Kirari zelaian mantenimendua
Txostenak ...
aholkularitza teknikoa.
Balorazioak

TXINGURRI
Koop. Elk.
Nekazaritza Injeneru Teknikoak

Ur-gintza

SANEAMENDUA - KALEFAKZIOA - GAS INSTALAKUNTZAK
GAS NATURALA - INPERMEABILIZATZEAK
ERAIKUNTZA LANAK - BAINUGELAK
SUKALDEKO ALTZARIAK

Iraeta auzoa z/g Tel. 943 148082
20740 IRAETA - ZESTOA Faxa: 943148124
78 postakutxa

Zumaia Hotela

Alai Auzategia
20750 Zumaia (Gipuzkoa)
TEL: 943 14 34 41
FAXA: 943 86 07 64

liburuak
aldizkariak
CDak
komikiak
eta
fantztzineak

ERRIBERA 10
TEL: 943 86 21 14

ttikittaka

haur
oinetakoak

BALTASAR ETXABE 2/6 TEL: 943 - 14 31 00 ZUMAIA

TXALAPARTA
O P A R I A K

Angeles Sorazu, 2
Tel. 943 143089



Ardantzabide

Sukaldeak
Egongelak
Era guztietako logelak
Mahaiak
Ateak
Leihoak
Horma armairuak
Tarimak
Era guztietako arotz lanak



Altzariak Larunbat arratsaldetan irekita!!

Hego kalea, 4 5. pabilioia

Tel./Faxa: **943 86 25 32**

TAILERRA: Santxo auzoa40

ERROTA

**OPIL
OKINDEGIAT**

*era guztietako tarta
eta pastelak*

LABEA:

Santxo auzoa

TEL: 943 86 00 00

Erribera, 2

Juan Belmonte, 5

Basadi, 4

P. Etxezarreta, 42

Alai, 8

TEL: 943 14 30 01

TEL: 943 86 03 00

TEL: 943 14 32 21

TEL: 943 86 25 28

TEL: 943 86 25 60